


MERKATARITZA INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA KATE HANDIETAN. 2020KO ABUZTUA

EAEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 3,9 egin dute gora, 2020ko abuztuan

Urteko lehen zortzi hilen metatua % 1,2ko hazkuntzarekin itxi da

EAEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek, 2020ko abuztuan, urte arteko igoera erregistratu dute, % 3,9ko prezio finkoetan, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, eta tasa positiboen elkarren segidako hirugarren hilabetea da, Eustatek emandako datuen arabera. 2020ko uztailaren aldean, salmentek % 1,1 egin dute gora, urtaro-eraginik gabe.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako elikagaien salmentek % 2,7ko igoera erakusten dute urte artean, eta gainerako artikuluen salmentek % 6,3ko igoera, aurreko urteko hil beraren aldean, egutegiaren eraginak atera ondoren.

2020ko uztailari dagokionez, eta urtaroetako ondorio egokiak atera ondoren, prezio finkoetako elikagaien salmentak iraunkor mantentzen dira (% 0,0ko aldaketa); gainerako produktuenek % 3,4 egin dute gora.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.
Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Abuztua 2020 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	3,9	1,1	1,2
Araba/Álava	7,3	2,2	2,7
Bizkaia	3,2	1,5	0,0
Gipuzkoa	3,7	0,0	2,6
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	2,7	0,0	9,0
Beste produktuak	6,3	3,4	-13,9
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	0,9	-0,5	1,4

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Lurralde historikoen arabera, horietan guztietan salmenten urte arteko igoera egon da, prezio finkoetan, eta igoera, egutegiaren eraginak atera ondoren, honako hau izan da: Araban, % 7,3; Gipuzkoan, % 3,7, eta, Bizkaian, % 3,2.

2020ko urtarriletik abuztura arteko metatuan, azalera handietako eta elikadura-kate handietako elikagaien salmenten indizeak % 1,2ko igoera izan du, elikaduran salmenta metatuetan egon den % 9,0ko igoeraren eta gainerako produktuetan salmenta metatuetan izandako % 13,9ko beherakadaren ondorioz.

Arabako eta Gipuzkoako lurraldeetan, urteko metatuan % 2,7 eta % 2,6 hazi dira, hurrenez hurren, eta Bizkaian metatutako bilakaera maila berean mantendu da 2019an (% 0,0ko aldaketa); hori guztia, prezio finkoetan eta lan-egutegiko termino homogeneoetan.

EAEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile enplegatuek % 0,9 egin dute gora, aurreko urteko hil beraren aldean, eta % 0,5 egin dute behera, halaber, aurreko hilaren aldean, urtaro-eraginik gabe. 2020ko lehen zortzi hilen metatuan, enplegatuek % 1,4 egin dute gora, 2019ko hil beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan kontuan hartutako enplegatuen artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientepean dauden pertsonak daude, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) enplegatuen inguruan [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jaso duen definizioari jarraikiz.

Egutegiaren eta serieen desestazionalizazioaren eraginak zuzentzeko erabilitako ereduak COVID-19ak aztertutako aldagaien gainean izandako eragina jaso dute, Europar Batasuneko Bulego Estatistikoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraikiz.

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egoerak ezohikoak izanik ere egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, abuztuko indizea laginaren **% 88,10eko estaldurarekin** kalkulatu da –haren informazioa irailean jaso da–.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62